

BIKOTE MISTOEN ERRIBERRIKO XAKE

AKTIBOKO II. TXAPELKETA

(2021ko azaroaren 21ean, Erriberrin)

2021eko azaroaren 21ean, goizez, Erriberriko Ostatuan izango da Bikote Mistoen Erriberriko Xake Aktiboko II. Txapelketa. Ordutegia: 10:00/13:30.

IZEN EMATEA

18 urtez azpikoentzat, 10 euro; 18 urtez gorakoentzat, 15 euro.

Posta elektronikoa honetan: "info.ajedrezeducativo@gmail.com". Adierazi beharrekoak: Izen-deiturak, TALDEaren izena, kide bakoitzaren jaioteguna.

Telefono honetan ere egin daiteke; 622 76 89 07. Edo washapp-aren bidez.

Talde bakoitzean bi edo hiru lagun izan daitezke. Ez dago elo, adin edo maila mugarik. Txanda bakoitzean taldea mistoa izanen da, hori bai. Emakumezkoen xakea bultzatu eta benetako berdintasuna bilatzeko.

Izena emateko azken eguna: 2021eko azaroaren 16an.

Gehienezko talde kopurua: 30. Orduan itxiko da inskripzioa.

JOKALARIEN ELOA

Torneoa ez da elorako baliagarria.

JOKO SISTEMA

Sistema suitzarra, 7 txandatan, programa informatikoaren bidez.

Parekaketen aurkako erreklamaziorik ez da onartuko, emaitzak ongi jarri badira.

Parte hartzaileen kopuruaren arabera, antolatzaileek joko sistema alda dezakete.

EZBERDINKETAK

- 1) Berdindutako taldeen arteko emaitza.
- 2) Bucholz – 1 (aurkari txarrena kenduta).
- 3) Bucholz osoa.

EPAILE LANA

Nafarroako Xake Federakundeko epaileek zuzenduko dute torneoa.

JOKO ERRITMOA

Jokalari bakoitzak 10 minutu izanen ditu.

TXANDEN ORDUTEGIA

Lehenengo txanda: 10:00.
Bigarren txanda: 10:30.
Hirugarren txanda: 11:00.
Laugarren txanda: 11:30.
Bosgarren txanda: 12:00.
Seigarren txanda: 12:30.
Zazpigarren txanda: 13:00.

Ahal bada, antolatzaileek azkartuko dute ordutegi hori.

AMAIERA EKITALDIA

14:00etan izanen da amaiera ekitaldia, agintariak bertaratuta. Trofeoen eta sarien banaketa izanen da. Xake Eskolako ikasleei diplomak banatuko zaizkie. Literatur Lehiaketako partaideei sariak ere bai. Gero, horretarako izena emandakoek Ostatuan bazkaria izanen dute.

SARIAK

Lehenengo talde sailkatuarentzat: ADADAE (Hezkuntza Xakearen Lagunen Elkarte) bi trofeo eta 250 euro.

Bigarren talde sailkatuarentzat: ADADAE bi trofeo eta 200 euro.

Beteranoen lehenengo taldearentzat: ADADAE bi trofeo eta 150 euro.

10 urtez azpiko lehenengo taldearentzat: ADADAE bi trofeo eta 100 euro.

Erriberriko Eskolako lehenengo taldearentzat: ADADAE bi trofeo eta 100 euro.

Erriberriko Eskolako bigarren taldearentzat: ADADAE bi trofeo.

Partaide gehien jarritako klubarentzat: Hormirudiko taula magnetikoa.

Sariak ezin dira pilatu.

BIKOTE BETERANOA: 50 urtetik gorakoek osatuak. Soilik kide bakarrak baldintza hori betetzen badu, bikote beteranoa izanen da batez besteko adina 40 urtera iristen bada.

ANTOLATZAILEA:

ADADAE Hezkuntza Xakearen Lagunen Elkarte.

BABESLEAK ETA LAGUNTZAILEAK:

Nafarroako Xake Federakundea, Erriberriko Vianako Printzea Ostatua eta Erriberriko Udala.

2018KO TORNEOKO AZKENEKO SAILKAPENA.

- 1) **Jamaica (2.397ko Alberto Quintin Navarro eta 1.792ko Irati Laseca Arana) – 14 puntu.**
- 2) **Adei (2.277ko Adrian Martinez Fernandez eta 2.077ko Eihartze Buiza Prieto) – 14 puntu.**
- 3) **Petardos (2.041eko Juan Labiano Hernandez eta 1.726ko Leyre Abrisqueta Zudaire) – 13 puntu.**
- 4) Los Alphazero (2.017ko Aitor Huarte Zozaya eta 1.938ko Ainhoa Ortin Blanco) – 12 puntu.
- 5) Okey Mikeih (2.448ko Mikel Huerga Leache eta 1.418ko Nerea Rosa Gamez) – 11 puntu.

- 6) Thebest2005 (1.907ko Alexandr Pedchenko Zhilkov eta 1.501eko Carlota Aramendia Ybarra) – 10 puntu.
- 7) Eunander (1.134ko Ander Goikoetxea Macua eta Eunate Afrika Tarragona Rebollo) – 10 puntu.
- 8) Trixake (Unai Ruiz eta Jazmin Ruiz) – 9 puntu.
- 9) Olit1 (Valvanera Rubio eta Diego Rubio) – 9 puntu.
- 10) Peone4 (Lucia Suescun Ocariz eta Jorge Suescun Ocariz) – 8 puntu.
- 11) Olit4 (Judit Jaurrieta eta Nicolas Lagos) – 7 puntu.
- 12) Olit5 (Marcos Ayesa eta Maria Sierra) – 7 puntu.
- 13) Xakearte (1.698ko Alfredo Ruiz Turrillas eta Paula Gutierrez) – 6 puntu.
- 14) Olit3 (Javier Ibañez, Amaia Senosiain eta Miguel Perez) – 6 puntu.
- 15) Olit7 (Hodei Huarte, Alvaro Marzo eta Susana Muñoz) – 6 puntu.
- 16) Olit2 (Mariya Topurtieva, Julian Perez Muñoz eta Xabier Hernandez) – 5 puntu.
- 17) Bohemian S.D. (Soto Camacho eta Saioa Torres) – 5 puntu.
- 18) Olit6 (Miguel Tanco, Natali Yuliyanova eta Paula Echeverria) – 5 puntu.
- 19) Tal (Adriana Sos San Julian, Enneko Sos San Julian eta Telmo Diaz) – 4 puntu.
- 20) Sevillas (Javier Sevilla Subiza eta Marina Sevilla Subiza) – 0 puntu.
- 21) Crisvladiamir (Vladimir Onila, Cristina Abdula Boisteanu eta Amir Abdula Boisteanu) – 0 puntu.

2021-10-21.

Iturria: Nafarroako Xake Federakundea.